

CULTURA

CULTURA | SAN SEBASTIÁN 2016 | CINE | LIBROS | MÚSICA | TELEVISIÓN | ZINEMALDIA | JAZZALDIA | PROGRAMACIÓN DE TV | CARTELERA

Hizkuntza eskubideen defentsa poetikoa

Juan Carlos García Hoyuelosek 'Airea, sua eta desira' egitasmoa aurkeztuko du Donostian, euskal sortzaile ugariaren esku-hartzea izango duen errezitaldi musikatuan

EL DIARIO VASCO |

@diariovasco

Me gusta

Compartir

0

21 febrero 2017

11:00

«'Aire, fuego y deseo' es la continuidad del compromiso de quienes, de una forma u otra, trabajamos para dignificar y

defender los derechos lingüísticos», dio izen bereko poemarioa plazaratu duen Ediciones Beta argitaletxe bilbotarrak Juan Carlos García Hoyuelosen proiektuaz. Zeren eta egitasmoa poesiaz haragokoa da, idazleak Iberiako hizkuntza guztietara eraman baititu bere poemak, euskarara barne.

Euskarazko bertsio hori, 'Airea, sua eta desira', astearte honetantxe aurkeztuko da Donostian, Liburutegi Nagusiaren jarduera aretoan (San Jeronimo kalea) 19:30ean egingo den saioan. Zehazki, liburu horretan oinarritutako errezitaldi poetikoa izango da gaur arratsaldekoa. Saioa Juan Ramon Makusok aurkeztuko du, errezitatzailerak Aritz Gorrotxategi, Pello Otxoteko, Felipe Juaristi eta Xabier Euzkitze izango dira, eta Gontzal Mendibilek musikatuko du emanaldia.

Juan Carlos García Hoyuelos Basaurin jaio zen 1968an, baina ume-umetatik Burgosen bizi da. 30 urte beteta zituela hasi zen idazten, eta literaturaren arloan egindako lanaz gain eremu urriko hizkuntza eta hizkeren aldeko militantzian nabarmendu da, baita kultura sefardiaren eta Espainiatik kanporatu zituzten juduek mantendu duten ladinoaren sustapenean ere.



Gontzal Mendibilek musikatuko du emanaldia. / FRAILE

PUBLICIDAD